




LUIS MARIA MENDIZABAL OSTOLAZA, S.J.

Debozio pribaturako otoitza

Jainko Aita errukitsu, zure maitasun sakona agertu nahi izan zenigun zure Semearen Bihotzean: Espiritu Santuaren bitartez Ama Birjinaren sabelean eratu zenuen Bihotz hori, gurutzean zulatua izan zena eta orain Eukaristian bizirik eta taupadaka dagoena.

Zuk eman zenion aita Luis Maria Mendizabal jesuitari Kristoren Bihotzaren misterioaren ezagutza sutsua eta bizipen sakona eta lagundu zenion apostolu, aita eta maisu espiritual nekaezina izaten.

Haren bitartekotzaz eman iezadazu denetan bilatzea zuri gehien atsegin zaizuna, guztiekin beti zintzo jokatzeari, zure Seme Jesu Kristori mundua salbatzen laguntzea eta, zure nahia bada, eskatzen dizudan mesedea lortzea (eskatu).

(Gure Aita, Agur Maria eta Aintza)

Urbano VIII.a aita santuaren dekretuek xedatutakoarekin bat, aitortzen dugu ez dela ezertan aurreratu nahi eliz aginpidearen epaia eta otoitz honek ez duela kultura publikorako helbururik.

Aita Luis Maria Mendizabal Ostolaza S.J. Bergaran (Gipuzkoa) jaio zen 1925eko ekainaren 4an. Jesusen Konpainian sartu zen Loiolan 1940ko abuztuaren 28an, apaiz ordenatua izan zen Innsbrucken (Austria) 1952ko uztailaren 25ean, eta 1958ko abuztuaren 15ean azkeneko botoak egin zituen.

Sant Cugat (Bartzelona), Innsbruck (Austria) eta Gregoriar (Erroma) Teologiako fakultateetan burutu zuen formakuntza. 31 urte besterik ez zituela Gregoriar (Erroma) Unibertsitatara (1956-1970) bidali zuten Teologia Espiritualeko irakasle izateko. Garai honetan teologo eta kontzilioko aita batzuekin harremana hasi zuen, eta berehala zabaldu zen haren ospea, aitorle eta aholkulari espiritual bikain gisa. Aurrerago, bateratu zituen irakaskuntza Erroman eta zeregin berriak Espainian: Hirugarren Probantzen jesuiten instruktore izan zen Gandian (1966-1969), eta Otoitzaren Apostolutzara urte asko eskaini zizkion (1969-1994), Estatu mailan Zuzendari izan zelarik. Garai honetan "Reino de Cristo" aldizkaria zuzendu zuen. Toledoko elizbarrutiko seminarioan apaiz izateko hautagaien heziketa espiritualean lagundu zuen. Jesuiten elizan aitorle izan zen Toledon (1994-2011), azkeneko urteetan lan egin zuen Alcalá de Henaresko (Madril) jesuiten egoitzaren erizaindegian eta bertan laguntzen jarraitu zuen, biziaren amaierara arte, aholku espiritualaren bila berarengana gerturatzen zirenei.

Gogo-jardunen ehundaka txandetan Zuzendari eta Kristoren Bihotzaren apostolu nekaezina izan zen. Alcalá de Henaresen hil zen 2018ko urtarrilaren 18an, 92 urte zituela. Berarekin harremanetan egon zirenen arrasto ahaztezina utzi zuen, bai espirituaren gogo biziagatik, bai zorion sakonagatik, bai erruki maitekorragatik, baita apostolu-grinagatik ere.

Eskatzen dizugu haren bitartekotzaz lortutako mesedeen
berri ematea ondoko helbideetara:

Causa Padre Mendizabal (calle Alfonso XII, 1. 45002 - Toledo).

favores@padremendizabal.com

Informazio gehiagorako jo www.padremendizabal.com web-orrira.

Elizaren baimenarekin